


Juan Mari Areitio 'Biskai'

«Urtero nobilladaren bat egitea gustatuko litzaidake»

Santanastasietan zer, Juan Mari Areitio 'Biskai' han. Biskai oso txikitatik hasi zen Urretxuko jaietan parte hartzen: txistua jotzen, koadrilarekin karroza egiten... eta bere zezenzaletasuna erakusten, noski. Zezenik ez dagoenean ere, txarangak pasodoblea jotzea aski du pase batzuk egiteko.

...

Festak gogotik ospatzeko go-go da Juan Mari Areitio Biskai. Jaietan zezenen aurrean sarri ibilia da eta faltan botatzen dituela dio. Orain, 55 urte beteta, baina, festak bere erara disfrutatuko dituela dio: txikiteoa, lagunarteko bazkaria.... Hori bai,

aurten biharamunean lanera joan beharrik barik.

■ Nola gogoratzen dituzu zure gaztaroko santanastasiak?

11 urterekin lehenengoz txistua jo nuen Euskal Jaian, koadrilakook karroza egiten

genuen... Egun guztia parrandan ematen genuen. Bestalde, garai batean Urretxun urtero bigantxak izaten zirela gogoratzen dut. Urretxu oso herri zezenzalea izan da: etxean 1901ean egindako nobillada bateko kartela dut. Garai bate-

an Zestoan oporretan zegoen jendea Urretxuko zezenketak ikustera etortzen zen. Are gehiago: Urretxuk zezenplaza desmuntagarria zuen, eta Zestoakoek, Arrasatekoek... alokatu egiten zuten.

■ Gertaera bereziren bat gogoratzen al duzu?

Nire pasadizo gehienek zezenekin zerikusia dute: txarangetako musikariek zezenzalea naizela dakitenez, azaltzen naizen bakoitzean pasodoblea jotzen dute, eta ez dut zezenen beharrik izaten pase batzuk eskaintzeko.

■ Zezenen aurrean ere ari-tua zara Santanastasietan...

1990ean, txekorrak ekarriko balituzte ea ateratzeko prest egongo nintzatekeen galdetu zidan alkateak. Nik koadrilakoe-ekin hitz egin, eta baietz esan genion. Zoragarri atera zen: Gernikako Arbola plaza jendez gainezka zegoen, eta txalo artean irten nintzen, nahiz eta txekorrak kolperen bat eman zidan.

■ Egun, ordea, ez da zezenketarik izaten...

Pena handia ematen dit. Batzuk

GARAI BATEKO JAIK

«Herri zezenzalea izan da. 1901ean egindako nobidalla bateko kartela daukat gordeta»

ZEZEN ZALETASUNA

«Txarangetakoek zezenzalea naizela jakinda pasodoblea jotzen dute ni ikustean»

ez dira zezenzaleak, baina, esan bezala, Urretxu herri zezenzalea izan da. Niri urtero nobilladaren bat egitea gustatuko litzaidake, baina egun ez dago jada non egin.

■ Bigantxetara aterako zara, behintzat...

Ayuso eta biok mutikoak zaintzeko asmoz joaten gara, baina jendeak badu nire zezenzaletasunaren berri, eta pase batzuk egiteko eskatzen dit. Dena den, egun bigantxetara lehen baino askoz ere jende gutxiago ateratzen da.

■ Bestela, santanastasieta-ko egitarauan zer edo zer aldatuko al zenuke?

Nik Umeen Eguna egingo nuke, egun bat eskainiko nieke haurrei. Bestalde, garai batean boxeoa, borroka libre... egiten ziren, eta horiek berreskuratzea ondo egongo litzateke. Bestela, festak ondo daudela iruditzen zait.

■ Zuk zeuk nola bizi dituzu festak egun?

Nik 55 urte ditut jada, eta neure giroan ibiltzen naiz. Koadrilan Egunean 30 bat lagun elkartzeko gara, eta gustura ibiltzen gara: goizean txikiteoa egiten dugu, ondoren bazkaria elkartean, arratsaldean beste baxoerdi batzuk hartzen ditugu eta txarangarekin dantza egiten dugu, eta gauean Kantu Afarira joaten gara. Primeran ibiltzen gara, baina biharamuna lan eguna da, eta goiz jaiki beharra dago. Zorionez, aurten ohean geldituko naiz, irailean hartu baititut oporrak. Aurtengo festak gogorrak izango dira.

IKER
FAGOR

SUKALDE ALTZARIAK

Udala Enparantza

 Tel.: 943 79 00 43 **ARRASATE**

Ipiñarrieta, 5

 Tel.: 943 72 50 75 **URRETXU**